

KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
97. zka. 5 euskal hiribururen Zeharkaldi Handia	8. etapa/Luzaide-Orreaga/ 2015-9-19/20

Adiskide xenda zaleok:

Gogoan izango duzuen bezala, 2012ko abenduaren 1ean ezinezkoa izan zen. Behe-lainoak eta aste hartan botatako elurrak eragotzi ziguten ibilaldi zoragarri hau egitea. Orain, irailean "jarrita", honetaz gozatzea espero dugu. Abiapuntua Luzaiden izango dugu; herri txiki hau Pirinioen ipar isurialdean eta orografia malkartsuaren erdian dago, Ibañetaren behealdean eta mendi altu samarren artean.

Herri txiki honetako pilotalekuaren ondotik igaro eta pixkanaka gora joango gara bidegurutzeraino. Han Ehunzaroi mendi-lepoa utzi (handik jaitsi ginelarik Lasaluzaide etapan) eta goraka jarraituko dugu pixkanaka. Gorago, gailur-lerrora igoko gara eta lehenik Meatze gailur politera (1209m). Handik aurrera, gailurreria polit honetan ibiliko gara, ikuspegi zoragarriak dituelarik norabide guztietan.

Gero, beste bi gailur ditugu: Lauriniaga (1278m) —non baitago 161. mugarría, baita ere Añamendi edo Labiñakokaskoa gisa ezagutzen dena— eta Atxistoi (1229m). Gero Ibañetako gainera iritsiko gara eta, azken zatia eginda, Orreagako Kolegio-eliza ospetsura, gure helmugara.

Santa Maria Errege Kolegio-eliza arte gotiko frantziarraren adibide paregabea da, eta bertan nabarmentzekoak dira Antsoren hilobi gotikoa, Orreagako irudia (XIII. mendea), Sancti Spiritus kapera —Karlomagnoren silo gisa ere ezaguna, Orreagako eraikinik zaharrena— eta Santiago edo erromesen kapera; ikustea merezi duten gauzak dira beren handitasun eta historiagatik.

Animo, xenda zaleok, natura zain dugu-eta!!!

Ibilbidea: Luzaide-Orreaga

Beharrezko denbora	4,45 ordu
Goranzko desnibel metatua	1.061 metro
Beheranzko desnibel metatua	685 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	17.580 m
 Ingurun 1  Orientazioa 2  Joan-etorria 1  Esfortzua 3	

Irteera-lekua	Autobusen geltokia/Amara Plaza hotela
Aurkezteko ordua	07:20
Irteera-ordua	07:30
Bazkaria	La Posada jatetxea
Prezioa	32 euro

Izena emateko azken eguna: 2015-09-17a, 12:00etarako

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzailerik, irteera bertan behera geratuko da.
b/Eguraldiaren iragarpena larunbaterako txarra baldin bada, igandean egingo da ibilaldia.

Izen-emateak posta-helbide hauetan egin behar dira:
alahuerta@kutxa.es/jlurretabizkaia@kutxa.es edo telefono hauetan: 943-00.14.69 (Alberto Lahuerta - Erosketa Administrazioa-806)/943-00.12.36 (Lorenzo Urretabizkaia - Erakundeak-381).
Izena ematen duzuen guztioi, txangoari buruzko agiri edo dokumentazioa emango zaizue. Bazkariaren ondoren, ohiko opari-zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.

